

## MUSUZURI KATUA



Gaua da. Hiria dirdirka dago: denda guztietako argiak dirdirka; etxe guztietako argiak dirdirka...

Teilatu batean hiru katu daude, ikuskizun zoragarriari begira.

Katu batek Fili du izena eta hauxe dio:

- Niri argi urdinak gustatzen zaizkit gehien.

Beste katuak Lulu du izena eta hauxe dio.

-Hango argi gorriak gustatzen zaizkit niri. Piztu-itzali ari diren haiek.

Hirugarren katuak Musuzuri du izena:

-Nik, berriz, Ilargiaren argia dut gogokoen.

Lulu eta Fifi iseka hasi zaizkio.

-Tira, tira! Itsusi-itsusia da eta Ilargiaren argia!

Bat-batean, hiriko ardi guztiak itzali dira. Matxuraren bat gertatu da.

Han goian, zeruan, hodeiak paretic kendu eta ezkututik Ilargia agertu da.

Ilargiaren argia hiri gainean pausatu da; teilatuko hiru katuen gainean; putzuko uraren gainean...

Musuzuri katuak irribarre egin eta zera galdetu die.

-Zein da argirik ederrena?

Fifi eta Lulu kexu dira. Ez dute gogoko Musuzurik arrazoia izatea.

**1. Non zeuden hiru katuak argiei begira?**

Parkean      Teilatuan      Kalean

**2. Klikatu hiru katuen izenak:**

Musuzuri      Fofo      Lili      Lolo      Lulu      Fifi

**3. Idatzi esaldi bakoitzean dagokion katuaren izena:**

ri argi gorriak gustatzen zaizkio.

ri Ilargiaren argia gustatzen zaio.

ri argi urdinak gustatzen zaizkio.

**4. Zergatik itzalli ziren hiriko argiak?**

Ilargiaren argia bakarrik ikusi nahi zuelako Musuzurik.

Matxura gertatu zelako.

Luluk eta Fifik iseka egin ziotelako Musuzuriri.

**5. Zergatik kexatu ziren Fifi eta Lulu?**

Ez zutelako ilunpean egon nahi.

Ez zutelako gogoko Ilargiaren argia ikustea.

Ez zutelako gustuko Musuzurik arrazoia izatea.